



Ohiko herri kirolak beharrean, Iparraldeko jolasen erakustaldia egingo dute.

Identitatea indartzeko eta elkarrekin gozatzeko egunak, Jolastokietan

Udako jaiei agur esan aurretik, aukera berri bat dute altzatarrek Jolastokietan. Ostegunean, hilak 11, botako dute traka eta suziria, igandera arte luzatuko den egitaraua abiatuz. Aurrez, orde, izango da zereginik, eta auzotarrak deitu dituzte prestaketetan laguntzera.

✂ Maitane Aldanondo Gabilondo
📷 Jolastokietako jaiak

Oporraldia atzean gelditu da askorentzat, baina uda amaitu aurretik festa batzuk ospatzeke dira oraindik. Altzatarrek zazpi dituzte aukera urtaroen zehar, azkenak, hilabete amaierako Arriaga serafinak. Horiekin denboraldia datorren urtera arte itxi aurretik, Jolastokietako jaien txanda izango da, hilaren 11tik 14ra bitartean.

Pasai txarangak girotutako traka eta txupinazoarekin ostegunean festa lehertuko bada ere, aurrez beste modu batera parte hartzeko aukera ere badute auzotarrak, prestaketetan lagunduta. Zeregin horiek ondo baino hobeto ezagutzen ditu Miguel Angel Diezek, hamarkadak baitaramatza auzuneko jaien ardura bere gain hartzen. «1986 urtetik. Erraz esaten da!», gogoratu

du miresmena eta etsipena nahasten dituen tonuan. Izan ere, urteak dira lekukoa beste norbaiti eman nahian dabilela. Ez du erabat alden du nahi, ezta erantzule nagusi izaten jarraitu ere. Zaila dela badaki, horregatik, jai batzordeko zazpi kideen lana aitor-tzeaz gain, laguntzen dietenena ere nabarmendu du. Horietako bati, Mari Carmen, aipamena egin diote aurtengo esku orrian. «Sorreratik jaietan lagun-tzen duen emakume bat da. Bolada bat darama gaixo eta beti izan duen laguntzeko borondateari aitor-tza da», azaldu du Diezek.

Sagardo Eguna eta beste

Dinamika nahiko hartuta badute ere, beritasunak barneratzen ahalegindu dira aurtien ere. Hala, betiko DJ-en lekuan, Jonhytronic eta Txolas ariko dira. Horiek 1970-80ko hamarkadetakoko musikaz gain, egungoa ere jarriko dute, «gazteek ere parte hartzeko». Gainera, Grezian taldearen kontzertua izango da. Halaber, Nafarroako jotak, paella jatea edota bingo musikatua barneratu dituzte; herri kirolean, Iparraldeko jolasen erakustaldia egingo dute, eta Sagardo Eguneko ekoizleak ere beste batzuk dira: Gurutzeta, Petritegi, Aburuza eta Bereziartua. Ekitaldi hori da, hain justu, jende gehien batzen dituenetako bat, eta herri afarian 80 bat lagun elkartzea ere nabarmentzekoa da. «Auzoaren tamaina kontuan izanda, asko da». Izan ere, Diezek uste du jaiak egite hutsa arrakasta badela. «38 urtez jaiak egitea gurearen moduko auzo batean...».

Haurrei begira, bi lehiaketa gehitu dituzte. Jolas Chef-en parte hartu nahi dutenek etxean prestatutako bizkotxoa, tarta edo dena delakoa aurkeztu beharko dute —plazan, azken ukituak eman edo apaintzeko aukera izango dute—; mozzorro lehiaketan, aldiz, kalera mozzorrotuta irten besterik ez dute egin behar.

Festak «identitatea indartu, sozializatu eta ika-mikak alboratzeko garaia» direla uste du Diezek, eta nabarmendu du orain arte ez dutela inoiz sexu erasorik izan. «Pozgarria da. Inor pasa ez dadin eta denontzat jai onak izan daitezen lan egiten baitugu». ●



ASTELEHENA 8 ASTEARTEA 9

17:30

Azken prestaketa lanak jaiak ondo bideratzeko.

18:00

XVI. Pala eta Eskuzko Txapelketa Jolastokietako pilotalekuan.

ASTEAZKENA 10

18:00

Migel Baztanen oroimenezko XXXII. edizioa. Futbol txapelketa hiru hiruren aurka, Jolastokietako pilotalekuan.

19:30

Kuadrillen arteko futbito txapelketa.

OSTEGUNA 11

17:30

3x3 saskibalo txapelketa.

18:00

Kale antzerkia: Pontx pailazoa. Ikuskizuna: *Denak plazara Pontx plazara*.

18:35

Argazki lehiaketa. Irailaren 28ra arte iraungo du. Argazkiak jai batzordeari eman 21:00ak baino lehen. Gaia: jaien ingurukoa. Hiru argazki parte hartzaile bakoitzeko.

OSTIRALA 12

17:45

Holi txupinazoa, traka eta suziria jaiak hasiera emateko.

18:00

Smoke Screen eskolaren *Origen* dantza ikuskizuna (Jolastokieta taldea).

19:15

Erraldoi eta buruhandien irteera Ttirriki Ttarraka Musika Eskola Elkarteko trikitilariekin.

19:30

Kuadrillen arteko txapelketaren finalerdia.

20:00

Pregoi kontzertua: Pasai Txaranga.

20:30

Sardina jate herrikoia.

22:30

ETO DJ-a, 02:30ak arte.

LARUNBATA 13

Haurren eguna

09:30

Diana Ttirriki Ttarraka Musika Eskola Elkarteko trikitixarekin.

10:15

Malabarismoa.

10:30

Ping-pong txapelketa. Babeslea: Jolastokieta okindegia (izen ematea kultur etxean).

10:35

Xingola lasterketa bizikletan.

11:00

Oinezkoen lasterketa.

11:15

Haur parkea Bertsolari Txirrita plazan eta Harrobieta plazan.

12:00

Karate erakustaldia, Jolastokieta eskolaren eskutik.

13:00

Apar festa.

13:30

Poteoa, Ttirriki Ttarraka Musika Eskola Elkarteko trikitilariekin.

16:05

Tute txapelketaren finalak, Caballero tabernan.

17:00

Familia danborrada, Pasai txarangarekin girotuta.

18:00

Pala finalak.

18:30

Txokolate bero bikaina gailatekin.

19:00

Erraldoi eta buruhandien irteera, Ttiriki Ttarraka Musika Eskola Elkartek girotuta.

19:15

Pop rocka Grezian taldearekin.

21:30

Herri afaria.

22:30

Jonhytronic (Jonathan) eta Txolas DJ-ak.

23:55

Zezensuzkoa.

02:30

Baratzuri zopa bizirik diraunenentzat.



IGANDEA 14

Kultur etxearen XXXIX. urteurrena

09:30

Diana Ttiriki Ttarraka Musika Eskola Elkarteko trikitixarekin.

10:00

XXXVIII. Jolastokieta lasterketa herrikoia.

10:30

Toka eta bote txapelketa.

11:15

Haurren mozzorro lehiaketa.

11:30

Doako bingo musikatua haurrentzat.

11:45

Luntxa, erretiratuentzat.

12:00

Arrautzopil eta azkenburukoen lehiaketa. Saria: bi lagunentzako bazkaria Next jatetxean.

12:05

Herri kirolak, Jolastokietako pilotalekuan. Esataria: Jose Angel Ibarrasti. Iparraldeko jokoak: Jon Lapazaran eta Eder Saez Ocádiz. Aizkolariak: Garbiñe Lopez de Aralde eta Sara Acento. Harri jasotzailea: Odei Izeta.



12:15

Marraskia aurkeztea, kultur etxean. Lan irabazlea 2026ko jai egitarauko azalean argitaratuko da.

12:30

Jolas Chef-a haurrentzat. Etxetik ekarritako gozoak eta pastelak plazan apainduko dira.

13:00

Txikiteoa Ttiriki Ttarraka Musika Eskola Elkartek girotuta.

13:15

Sari banaketa.

14:00

Herri paella, Jolastokieta plazan.

16:00

Mus txapelketaren finalak, Joserra tabernan.

17:00

Nafarroako jotak (Voces Navarra taldea).

18:00

Sagardo eguna (Juanjo Matxinandiaren oroimenezko X. edizioa). Sagardotegi hauek parte hartuko dute: Gurutzeta, Petritegi, Aburuza eta Bereziartua.

18:30

Groseko erraldioen eta buruhandien irteera, Joan eta Maika trikilariekin.

19:30

Diskoteka ibiltaria.

20:10

Zezensuzkoa.

20:30

Azken traka eta jai amaiera.